

# Argitalpenak

## Diskoteka

IKER BARANDIARAN

### Pop-rocka eta folka, biak bat

Bagenekien Gasteizen gitarrarekin lagunduta doinu xuabeak lantzen zituen tipo bat zegoela. Popa egin arren, abesteko eran folketik hurbil zegoela ere antzematen zen, eta tarteka Koiuntura talde iruindarra gogora ekarri zigun. Estreinako lan honetan instrumentu tradizionalen laguntzarekin malenkonía eta sentipen kutsu handia duten kantuak folkaren kolore eta giro bereziz jantzi ditu. Esku-soinua, teklatuak, gaita edo gitarra bat tartean. Euskaraz abestutako hamabi kantuetan forma eta izaeran ia biluzik Ternuara joandako senitartekoari, lagunen aspaldiko gutunei, desiratzen duen maitasun horri, *bullying*aren biktima Jokini, gerrari edota adierazpen askatasunari abesten die. Tarteka umoretsu aritzen den arren, emaitza hobeak lortzen ditu *Nik, J* moduko kantu sentikorretan.



#### Garai hobeak

Mikel Eguiluz

AUTOEKOIZPENA

Iraupena: 48'50"  
7,95 euro

MIKEL EGUILUZ

### «Gustatuko litzaidake talde bat osatu eta abestiei kolore gehiago ematea, babestuago sentituko nintzateke»

Zure musikak pop-rocketik eta folketik, bietatik, asko dauka. Are gehiago, diskoan instrumentu tradizional dezente sartu dituzu...

Zaila egingo zitzaidan diskoa estilo bati lotzea, baina egia da pop eta folk doinuak hainbat abestitan daudela. Bestalde, folk doinuak jorratzea lagungarria izan zait abestiak apaintzerako orduan. Horretan asko zor diet lagundu didaten musikariei.

**Zein da helburua kantu bat idazterakoan? Terapia?**

Nire buruarekin lasaiago gertzea, eta jendeari nire hitzekin zerbait berezia transmititzea. Animo handiak jaso ditut lan hau ekoiztu nuenetik, eta hori niretzat ordainezina da. Horregatik triste bukatzen diren egunetan horretan pentsatzeak irriñoa itzultzen dit. Hala, terapia bat baino gehiago musika niretzat sendagaia da, nire egunero ko asmoetan ilusioa ez galtzeko laguntzen nauena.

**Zergatik dira "garai hobeak"?**

Izenburuak etorkizunean du begirada jarrita, momentu horretan

nire bihotzak hori beharrezkoa ikusten baitzuen aspaldi bilatzen ari naizen maitasuna aurkitzeko. Garai hobeekin amestea izan zen diskoa sortzera eramanez ninduen pentsamendua.

**Diskoa kapritxoz autoekoiztu duzu edo diskoetxeek pasoa egiten dutelako?**

Autoekoiztea aukeratu nuen diskoarekin nituen hel-

buru guztiak diskoetxeekin ez nituelako lortuko agian. Nik aukeratu dut salmenta prezioa, gaurko merkatu zail honetan publiko zabalagoarengana heltzen saiatzeko.

**Ikusten al duzu zure burua talde batean, edo nahiago duzu bakarka aritzea?**

Bakarka aritzeak askatasun handiagoa ematen dizu, gehienbat kontzertuak egiterako orduan; baina ozentasunean indar falta sumatu daiteke batzuetan. Izugarri gustatuko litzaidake talde bat osatu eta abestiei kolore gehiago ematea, babestuago sentituko nintzateke. Baina, aldi berean, abestien hitzak beste modu batean idatziko nituzke. Ikusiko dugu zer gertatzen den...

